







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %5,5 egin zuen behera apirilean, 2015. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %12,7 jaitsi zen; etxekoan eta zerbitzu arloan, berriz, %4,2 eta %5,9 igo ziren, hurrenez hurren. Apirilera arteko kontsumo metatua %2,8 egin zuen behera, aurreko epealdian izandakoarekin erkatuta; etxeko sektorean %3,8 jaitsi zen eta industrian %5,3; zerbitzuan, ordea, %3,9 igo zen. Industrian, gora egin zuten azpialorrak hauexek izan ziren: burdinazkoa ez den metalurgia (%6,5), beiragintza (%5,4), papergintza (%5,3) eta kautxuaren eratorriak (%5). Behera egin zutenak, aldiz, siderurgia (%14,3) eta zementua (%1,6) izan ziren.

Gas naturala







Apirilean, gas naturalaren guztizko kontsumoak %6,5 egin zuen behera, 2015eko apirilean izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %48 jaitsi zen eta gainerako sektoreena, berriz, %2,1 igo zen. Apirilera artera izandako kontsumo metatua %11,5 jaitsi da (%35,9 CCTT-n eta %7,6 gainerako sektoreetan).

Erregaiak garraioan

Martxoan, garraioan erregaien kontsumoa %3,4 jaitsi zen, 2015. urteko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinaren kontsumoak %1,2 egin zuen behera eta A gasolioarenak %3,6. Lehen hiru hilekoan izandako kontsumo metatua %0,4 igo zen, 2015eko epealdi berarekin alderatuta. Hala, gasolinena %1,4 igo zen eta A gasolioarena %0,2.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAetik kanpoko egoera






Petrolioaren kontsumoa munduan
 Apirilean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 95,2 milioi kupel izan zen (2015eko apirilaren izandakoaren aldean, %1,8 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %2,1 egin zuen behera kontsumoak, 13,4 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan %3,6 egin zuen gora, eta 11,9 Mbpd kontsumituzera heldu zen; AEBetan %3,8 igo zen, eta 19,8 Mbpd kopuruan kokatu zen. Munduan, azken 6 hilabeteetan, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,5 igo da, oro har; zahazki, Txinan %3,8, AEBetan %1,3 eta Europar Batasunean %1,5.

Energiaren kontsumoa Espainian
 Espainian, gas naturalaren kontsumoak %4,6 egin zuen gora apirilean, 2015eko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Apirilera arteko kontsumo metatuak %6,8 egin zuen behera. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, gora egin zuen apirilean, %7, 2015eko apirilean izandakoaren aldean. Apirilera arteko kontsumo metatuak %0,6 egin zuen behera.

Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %3,8 egin zuen gora gora martxoan, 2015eko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %4,4 igo zen eta gasolioena %3,7. Lehen hiru hilekoan izandako kontsumoak %3,4 egin zuen gora, iazko epealdiaren aldean, (%3,1 igo zen gasolinena eta %3,5 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %9,9 egin zuen gora martxoan; aurtengo lehen hiru hilekoan kontsumoak %6,4 egin du gora, 2015eko epealdiarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIAREN datuetan

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petroliu upelaren batez besteko prezioa 42,3 \$ (37,3 €) izan zen apirilean. Urte mugikorren batez besteko prezioak %43,5 egin zuen behera (%36,3 eurotan).

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 24,1 €/MWh izan zen apirilean; duela urtebetekoaren aldean, %46,8 egin zuen behera.

Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 15,2 €/MWh izan zen martxoan, eta %31,8 jaitsi zen, 2015eko hil berean izandakoarekin erkatuta. Apirilean, EGIX-en prezioa 12,5 €/MWh izan zen (2015eko apirilean izandakoarekin alderatuta, %37,2 jaitsi zen). Spot merkatuetan, apirilean Henry Hub-en prezioa 5,7 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 17,5 €/MWh (2015eko apirilean izandakoaren aldean, %29,7 eta %30 egin zuten behera, hurrenez hurren).

Erregaiaren prezioa

EAEn, apirilean, gasolioaren prezioa 0,96 €/l izan zen (urtebetean %17 jaitsi da), eta gasolinarena 1,13 €/l (urtebetean %10,7 jaitsi da).

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 5,9 €/t izan zen apirilean, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %16,2 egin du behera.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.